

## **Yann Tiersen Heineken Jazzaldian izango dugu, non salbuespenezko kontzertu bat eskainiko baitu bakarka**

**Uztailaren 29an izango da, Kursaal auditorioan, abonamendutik kanpo**

Yann Tiersen musikari bretoi ospetsua, Europako instrumentu-jotzaile bikainenetako bat, abesti ahaztezinak idatzi dituena, 53. Heineken Jazzaldiaren programara gehitu zaigu bakarka eskainiko duen salbuespenezko kontzertu batekin. Uztailaren 29an izango da, 23:00etan, Kursaal auditorioan, 20 eurotan (abonamendutik kanpo).

### **An Evening With Yann Tiersen Solo In Concert**

**Yann Tiersen** (pianoa, biolina, ahotsa)

Yann Tiersenen bakarkako emanaldia, pianoa eta biolina lagun dituela, haren jarraitzaile ugariaren oroimenean lorratz sakona utziko duen ekitaldia izatera deituta dago. Britainiako musikari honek –bere belaunaldiko errespetatuenetako bat– 2001ean egin zuen jauzi nazioarteko ospera, *Amélie* filmaren soinu-banda idatzi zuenean.

Haren ibilbidea, ordea, hori baino askoz gehiago da, bai urte hartaz aurretik eta bai geroztik. Tiersen bera desmarkatzen da zinemarako konpositorearen etiketa horretatik (“Ez naiz konpositore eta ez dut iraganik musika klasikoan”) eta haren biografiak argi eta garbi erakusten du: 6 urtetik 14ra arte biolina eta pianoa ikasi

# 53 Heineken® JAZZALDIA

DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN  
UZTAILA / JULIO / JULY  
25-29 2018

zituen eta, orkestra-zuzendaritzara bideratu edo ez zalantzan egon ostean, horiek guztiak bazter utzi eta, Joy Division eta The Stooges-etan inspiraturik, gitarra elektrikoa hartu eta post-punkean murgildu zen 80ko hamarraldiaren bigarren erdi aldera.

Urrats ausarta izan zen lehenengo hura, dudarik gabe. Haren ibilbideak kolore guztietako eraginak izan ditu geroztik: kaleko musikatik abangoardiakora, minimalismotik rockera, eta baltsetik chanson deitura. Zinemarako idatzi dituen hiru soinu-bandez aparte –aipatutako *Amélie* ez ezik, *Goodbye Lenin!* (2003) eta *Tabarly* (2008)– zuzeneko hiru album argitaratu ditu, azkenekoa *On Tour* (2006). Gainera, Tiersenen diskografiak –1995ean estreinatu zen *La Valse des monstres* izenekoarekin– bederatzi titulu gailen ditu jada. Berriena *Eusa* izenburukoa da, pianorako hamar konposizioz eratua eta partitura-liburu gisa argitaratua, haietako bakoitza jaioterrizat duen uharterko toki batean inspiratua, hain zuzen, bretainieraz, Eusa deitzen baita uharte hura.

Aurreko udan, formatu berean, Bartzelonako Jardins de Pedralbes jaialdian jo zuenean (sarrerak agorturik zirela), hona zer ekarri zuen *El País* egunkariak: "kontzertu biribila, hurbilekoa. Yann Tiersenek Montmartreko txoko bat bihurtu zituen Pedralbeseko lorategiak". Norvegiako *Here Today* online-ko aldizkariak, berriz, definizio ezin hobea egin zuen: "Yann Tiersen, bakarka aritu arren, ez dela bakarka ari ematen duen artista bakan horietakoa da".

## HEINEKEN JAZZALDIA

Erregina Erregeordea, 8 - 20003 Donostia / San Sebastián  
T. (0034) 943 481 900 E. jazzaldia@donostia.eus  
[www.heinekenjazzaldia.eus](http://www.heinekenjazzaldia.eus)

